



«Nortasuna(k) borrokan» proiektu deialdia

Laugarren edizio baterako, Kanaldudek, TV7k eta Tënk-ek bat egin dute bi sorkuntza-dokumentalen laguntzeko, « Nortasuna(k) borrokan » izeneko proiektu deialdi baten kariatara.

Nortasun nazional, sinplifikatzaile eta konkistatzaile baten ideiarene aitzinean, nortasun anizkunak, konplexuak, beti aldatzen segitzen dutenak daudela ohartzen gara. Nortasun hauskorragoak, nahi ala ez, bizi izan denaren errealitatean erroturik baitaude, historia indibidualaren eta eraikuntza kolektiboen bidegurutzean.

Proiektu deialdi hau abiaraziz, komunitateek eta norbanakoek existitzeko eta aitortuak izateko egiten dituzten borroka intimoak edo/eta politikoak erakutsi eta entzunarazi nahi ditugu.

Sustengatu nahi ditugun filmek beren begiradaren subjektibotasuna asumitzen dute, munduaren zati bati begiratzeko beren begiak proposatzen dizkiguten autore batzuen lanak dira. Sorkuntza-dokumentalak dira, forma bat proposatzen dutenak, narrazioak eraikitzeko molde nagusitik urruntzen direnak.

Kanaldudek, TV7k eta Tënk-ek hautatuak izanen diren filmen hedapen-eskubideak aitzinetik erosiko dituzte. Erosketa horrek, lagunduko den film bakoitzaren kasuan, ondoko abantailak ekarriko ditu:

- 20 000 €-ko diru ekarpen orokorra (hots, 10 000 € Kanaldudek eta 10 000 € TV7k).
- 10 000 € inguruko industria-ekarpena, horren barnean izanik Tënk-ek nahaste-auditorium bat utziko diola aste batez (4 000 €).

Hautatua bada, industria ekarpen honen xehetasunak Tënk-en eta ekoizpenaren arteko eztabaida eta baliozkotze-gai izango dira.

[Nahaste-auditoriuma](#) Lussas-en dago, Ardèche departamenduan. Ostatua eta garraioa ekoizpen-egituraren gain geldituko dira.

UTZIKO DIREN ESKUBIDEAK

Sustengatu filmak Kanaldude, TV7 eta Tënk kateetan hedatuko dira. Utziko diren hedapen-eskubideak ondokoak dira:

- Kanaldude eta TV7 kateetan antenan eta replay moduan hedatzekoa (Eskubideen iraupena: 5 urte, 6 hilabeteko eskusibotasuna barne),
- 4 hilabeteko SVOD hedapen ez eskusiboa Tënk plataforman, eta 12 hilabeteko bigarren hedapena plataforman.

Hedapen guziak ekoizpen-egiturarekin adosturik programatuko dira.

HAUTAGAI IZATEKO

Hautagarriak izateko, aurkeztuak diren proiektuek zenbait baldintza bete behar dituzte:

- Formatu dokumentala izan, egile-ikuspuntu espezifikoa bat aldarrikatuz, garatuz eta irudikapen modu berezi bat proposatuz.
- Deialdiaren gaiarekin lotura izan: Borrokan dauden identitateak: komunitateen eta norbanakoen existitzeko eta aitortuak izateko borroka intimoak eta/edo politikoak.
- Eremu profesionalean eginga izatea eta, beraz, ekoizpen-elkarte batek edo ekoizpen-enpresa batek lagundua izatea (APE 5911 A edo C kodea).

Irizpide hauetarik bat bederen betetzea:

- Akitania Berria eskualdeko egitura batek eramana izatea.
- Akitania Berria eskualdean bizi den egile batek eramana izatea.
- Akitania Berria eskualdearekin lotura kultural sendoa izatea edo Akitania Berrian egingen diren ekoizpen-gastuak justifikatzea.
- Garapen-fasearen amaieraren eta postprodukzioaren hasieraren artean egotea.
- Kate nazional baten engaiamendua errezibitua ez izatea.
- Kateen aitzineko proiektu deialdietan errefusatu ez izatea (baimen berezia salbu).
- 2028ko abendurako aurretik amaituta egon behar da.

EGUTEGIA

- Hautagaitza-dosierren irekitzea: 2026ko irailaren 16a.
- Proiektu deialdiaren bukaera: 2026ko urriaren 14a (barne).
- Emaizak: 2026ko abenduaren 16a.

PROIEKTU BAT AURKEZTU

Mesedez, bete eskaera orri hau: [HEMEN](#)

**Ekoizpen-etxe bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake saio bakoitzeko.*

Betetako eskaera orriaz gain, mesedez, prestatu dokumentu hauek PDF formatuan:

- Dossier artistikoa (laburpena; asmoen adierazpena; ekoizpen-oharra; prozesamendua; sekuentziazio labur bat, agian). Eskaeren azterketa sakona bermatzeko, gomendatzen dizugu dossier artistikoa gehienez 35 orrialdekoa izatea, argazkiak kontuan hartu gabe;
- Finantzaketa-plan zehatza eta aurreikusitako aurrekontua, dagoeneko lortutako finantzaketa zehaztuz;
- Proiektua hobeto ulertzeko beste edozein audio- edo filmatutako materialetarako esteka;
- Egilearen(en) curriculumak eta ekoizpen-enpresaren(en) katalogoa(k);
- Zuzendariaren eta eskaera aurkezten duen ekoizpen-etxearen arteko eskubideen aukera- edo lagapen-kontratua;

ARAU OSOAK ETA MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

- Arau osoak eta baldintza zehatzak [HEMEN](#) aurki ditzazkezu.
- Deialdi guztiak [HEMEN](#) ikusi ditzazkezu.

TËNK-EN INDUSTRIA EKARPENENKO TARIFAK

- Edizioa (teknikaririk gabe) : 210 € eguneko.
- Kolore zuzenketa (teknikaririk gabe) : 600 € eguneko.
- Soinu edizio (teknikaririk gabe): 460 € eguneko.
- Nahastea, Nahaste-auditorium 7.1a (teknikaririk gabe): 800 € eguneko.
- Nahastaile laguntzailea: 200 € eguneko.
- Tënk-ek laguntzea: 280 € eguneko.

KONTAKTUAK

Proiektu deialdiari buruzko edozein galdera egiteko, kateetako erosketa-aitzineko arduradunekin harremanetan jartzera gomitatzen zaitugu:

Tënk-en izenean: Line Peyron / line.peyron@tenk.fr

TV7ren izenean: Damien Cortadi / production@tv7.com

Kanalduderen izenean: Loïc Legrand / loic@kanaldude.eus

Proiektu deialdi hau Akitania Berria eskualdearen laguntzarekin egina da.